ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA OBRAK KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA MEDIO: UDALEKO SUTEGI LIBURUTEGIKO IRAKURKETA GELAREN BERRIKUNTZA

LEHENENGO BALDINTZA: Xedea eta kalifikazioa

1.1 Kontratuaren xedearen deskribapena

Baldintza hauetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea Usurbilgo Udaleko Sutegi Liburutegiko irakurketa gelaren berrikuntza dagozkion obrak egitea da, arkitektoaren Proiektu Teknikoan oinarrituta. Arkitektoaren proiektu teknikoak kontratu izaera izango du.

Zehaztutako kontratua obren administrazio kontratu izaera izango du, 9/2017 Legearen 13. artikuluaren arabera, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinaren bitartez Espainiako araudi juridikoari egokitzen zaizkion Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak.

Usurbilgo udaletik, kontratuaren arduraduna udal hirigintzako teknikaria izango da.

1.2 Kontratuaren xedea sortatan banatzea

Kontratuaren xedea ez da sortatan banatuko.

1.3 Kontratuaren xede diren prestazioak identifikatzeko kodea

CPV kodeak:

- 45210000-2 Higiezinak eraikitzeko lanak
- 45443000-4 Fatxadako lanak

BIGARREN BALDINTZA: Hautatzeko eta esleitzeko prozedura

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

Kontratua esleitzeko modua prozedura ireki sinplifikatua izango da, non interesatuta dagoen enpresari orok aurkeztu ahal izango duen bere proposamena, eta ezingo dira kontratuaren baldintzak lizitatzaileekin negoziatu.

Kontratua esleitzeko, esleitzeko irizpide anitzei jarraituko zaie, kalitate-prezio onenari begira, hamargarren baldintzan zehazten denaren arabera.

HIRUGARREN BALDINTZA. Kontratatzailearen profila

Kontratuko jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta atzitze publikoa bermatu ahal izateko, eta publizitaterako beste baliabide batzuk erabili ahal badira ere, Udalak Kontratatzailearen profila du, non hurrengo web orrian araututako zehaztapenen arabera sartu ahal izango den: http://www.usurbil.eus/eu/kontratatzailearen-profila.

LAUGARREN BALDINTZA. Kontratuaren aurrekontua

Kontratuaren balio balioetsia 74.489,90 € dira, BEZ kanpo, gehi % 21 BEZ, 15.642,88 €, hau da, guztira 90.132,78 €.

EGIKARITZE MATERIALAREN AURREKONTUA (EMA)	62.596,56 €
Gastu orokorrak (% 13)	8.137,55 €
Industriaren onura (% 6)	3.755,79 €
KONTRATA EGIKARITZEKO AURREKONTUA	74.489,90 €
BEZ (% 21)	15.642,88 €
LIZITAZIO OINARRIAREN AURREKONTUA, GUZTIRA	90.132,78 €

Lizitatzaileek zenbateko horretatik beherako eskaintzak egin ahalko dituzte, eta beste

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

zenbateko bat proposatu. Lizitatzaileek egiten dituzten proposamenek barnean hartuko dituzte, ondorio guztietarako, Kontrataren prezioak ez ezik, kontzeptu guztiak zergapetzen dituzten nolanahiko zergen kuotak ere. Hala ere, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, eskaintzek bereiz adierazi beharko dituzte kontratuari araudiaren arabera aplikatu beharreko tasa eta zenbatekoa.

BOSGARREN BALDINTZA. Kreditua egotea

Kontratuaren betebehar ekonomikoak aurrekontuen hurrengo aplikazioetatik ordainduko dira, hau da:

1.6000.622.332.10.01 (2021)

Kontratua udal aurrekontuaren goian adierazitako aplikaziotik ordainduko da, non atxikita dagoen beharko den kreditua.

SEIGARREN BALDINTZA. Prezioak aldatzea edo zuzentzea

Ezingo dira prezioak aldatu.

ZAZPIGARREN BALDINTZA. Egikaritze epea eta Kokapena

Plegu honetan aipatzen diren lanak gauzatzeko epea 3 hilabete izango da. Lizitatzaileek beraien eskaintzetan epe hau hobetzeko aukera izango dute.

ZORTZIGARREN BALDINTZA Kontratatzeko Gaitasuna, Sailkapena eta kaudimena

8.1 kontratatzeko gaitasuna

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte lan egiteko gaituta dauden pertsona natural edo juridikoak, espainiarrak edo atzerritarrak, kontratatzea debekatuta ez badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute.

SPKLren 159. artikuluko 4. ataleko a) hizkiak dioenez "*Prozedura sinplifikatu honen bidez egindako lizitazioetara aurkezten diren lizitatzaile guztiak egon behar dute erregistratuta Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Klasifikatuen Erregistro Ofizialean, edo, dagokionean, Autonomia Erkidego horretako Erregistro Ofizialaren 96. artikuluaren 2. atalean zehazten denaren arabera, eskaintzak aurkezteko azken datan, aurkeztea mugatuta egon ezean*".

8.2 Sailkapena

Lizitazaileek beraien kaudimena egiaztatzeko bi aukera izango dituzte:

1- Plegu honetako 8.3 eta 8.4 klausulek aipatzen duten kaudimen ekonomikoari eta teknikoari dagokion sailkapena egiaztatuz.

2-Zuzenean plegu honetako 8.3 eta 8.4 klausulek aipatzen duten kaudimen ekonomikoa eta teknikoa egiaztatuz.

8.3 Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, honako bitarteko hauek erabilita egiaztatu beharko da:

Lizitatzailearen kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, 111.734,85 € edo handiagokoa izan behar du .

Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

8.3 kaudimen teknikoa

Kaudimen teknikoa, ondoren zehazten den agirien bitartez:

Azken bost urteetan egindako lan nagusien zerrenda, haien zenbatekoa eta data aipatuta eta norentzat egin dituen (sektore publikoarentzat edo pribatuarentzat egin dituen) zehaztuta. Sektore publikoko erakunde batentzat egindako zerbitzu eta lanak egiaztatzeko, organo eskudunak egindako edo ontzat emandako ziurtagiriak aurkeztuko dira, eta, subjektu pribatu batentzat egindakoak egiaztatzeko, hark egindako ziurtagiri bat edo, ziurtagiri horren faltan, enpresaburuaren adierazpen bat.

Azken bost urteetan egindako lanen artean behintzat baten zenbatekoa (obra bakar bat), kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo gehiago izan beharko du, hots 52.142,93 € edo gehiago izan beharko du gutxienez kontratuaren sailkapen talde edo azpitalde bereko lanei dagokienez.

BEDERATZIGARREN BALDINTZA. Proposamenen aurkezpena eta Administrazioaren dokumentazioa

9.1 Aurretiko baldintzak

Interesatuta dauden erakundeen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintzak eta dokumentuak beteko dituzte, eta haiek aurkezteak baldintza guztiak osorik, salbuespenik gabe eta baldintzarik gabe onestea dakar.

Erakunde lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, eta ezingo du aldi baterako beste batzuekin elkartu banaka aurkeztu bada, edo aldi baterako elkarketa bat baino gehiagotan agertu. Arau horiek urratzeak haren proposamen guztiak baztertzea eragingo du.

9.2 Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea

Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez aurkeztuko dira.

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

Eskaintzak 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira lizitazio-iragarkia Usurbileko Udaleko Kontratugile Profilean (www.usurbil.eus) argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

9.3. Lizitatzaileentzako informazioa

Informazio osagarria edo gehigarria eskatu behar denean, SPKLren 138. artikuluan zehazten denaren arabera, kontratatzen duen administrazioak, gutxienez, eskaintzak aurkezteko zehaztutako epea bukatu aurreko sei egunetan aurkeztu beharko du, asko jota, beti ere eskaera hori epearen datarekiko hamabi egun lehenago aurkeztuz gero. Eskakizuna bi posta elektroniko hauetara (bietara) zuzenduko dira (kontratazioa@usurbil.eus eta teknikaria@usurbil.eus).

9.4 Proposamenen edukia

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak gutun azal elektroniko bakarrean aurkeztuko dira:

> ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA IRIZPIDE AUTOMATIKOEN ESKAINTZARI DAGOKION GUTUN-AZAL BAKARRA.

Gutun azal honen barruan, zera sartu beharko dute lizitatzaileek erantzukizunpeko adierazpena eta baloratu beharreko irizpide bakoitzerako beraien eskaintza (prezioa, egikaritze-epea eta berme epea). Horretarako, plegu honen I. eranskineko eredua erabili beharko da. Eranskin honekin batera baldintza teknikoetako 12. baldintzan aipatutako Memoria Teknikoa aurkeztu beharko da; ez da onartuko hutsunerik, akatsik edo marradurarik duen eskaintzarik, Administrazioak hura aztertzeko funtsezkoa den ezer argi eta garbi jakitea eragozten badu betiere.

Proposamenek bereiz adieraziko dute balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa.

• Aldi baterako enpresa elkarteak.

Aldi baterako enpresa elkarteek erantzukizunpeko adierazpen bakarra eta baloratu beharreko irizpide bakoitzerako eskaintza bakarra aurkeztu beharko dute, I. eranskineko eredua jarraituz, elkartea eratzen duten entitate guztiek sinatuta.

Gainera, aldi baterako enpresa elkartean parte hartzekoak diren enpresaburuek aldi baterako

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

enpresa elkartea eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen 69.3. artikuluaren arabera, eta enpresa elkarteek kontratua iraungi arte iraun beharko dute gutxienez.

Konpromiso hori hartzeko idazkia elkartea eratzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute, eta honako hauek adierazi beharko ditu: aldi baterako enpresa elkarte bakoitza eratuko dutenen izenak eta zirkunstantziak, elkarteko kide bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa.

Gutun-azaletako dokumentazioari buruzko oharrak:

* Proposamenen bat ez badator bat aztertzen eta onartzen den dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, nabarmen ezberdina bada ereduaren aldean, ageriko akats bat badu zenbatekoari dagokionez edo bideraezin bihurtzen duen akats edo ahulguneren bat badu, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu baten bidez. Ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ordea, ez da izango nahikoa proposamenak baztertzeko, haien zentzua aldatzen ez bada betiere.

**Prezioen eskaintzaren banakatzean antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.

HAMARGARREN BALDINTZA. Esleitzeko irizpideak

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza onena zein den erabakitzeko, esleipen irizpide anitzak baloratuko dira, guztiak formula bidez kalkulatzen direnak.

A. Prezioa (0-35 puntu)

Eskaintzen balorazioa ondoren zehazten den formula matematikoaren arabera egingo da:

$$\text{Puntuaketa} = \frac{Pb}{Po} \times 35$$

Po= Balioesteko eskaintza ekonomikoa

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

Pb= Eskaintzarik baxuena

Hasiera batean, neurriz kanpoko edo anormaltzat hartuko dira Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren) 85. artikuluaren arabera halakotzat hartu beharrekoak eta SPKLaren 149. Artikuluak aurreikusten duena jarraitu beharko da.

B. Obraren epea murriztea (0-35 puntu)

Lizitatzaileak obraren epea murriztu ahal izango dute. Murriztutako 6 egun natural bakoitzeko (ez dira tartekoak onartuko), 7 puntu, gehienez 35 puntu. Atzerapenarengatiko isunak lizitatzaileak proposatutako epeen arabera zehaztuko dira.

C. Berme-epea (0-30 puntu)

Eskaintzen balorazioa ondoren zehazten den moduan egingo da:

- Urte bateko garantia epea: 0 puntu.
- Bi urteko garantia epea: 15 puntu.
- Hiru urteko garantia epea: 30 puntu.

HAMAIKAGARREN BALDINTZA. Aldaerak onartzea

Ez dira onartuko aldaerak.

HAMABIGARREN BALDINTZA. Eskaintza baxuegiak

Eskaintzen prezioa baloratzean, horietako batean anormaltasun susmoren bat dagoenean, kaltetutako lizitatzaileek bost egun izango dituzte egoera horiek justifikatu ahal izateko, horren inguruan 9/2017 Legeak azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinaren

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

bitartez Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 2014/23/UE eta 2014/24/UE, 2014ko otsailaren 26koa Zuzentarauen espainiar araudi juridikoa egokitzen dituenaren 149.4 artikuluan horren inguruan zehazten diren irizpideei jarraituta.

Eskainitako prezioaren izaera anormala 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Araudiaren 85. Artikuluan zehaztutako irizpideen arabera egingo da.

Justifikazioak jasota, lizitatzaileak bere eskaintzari eusteko erabili dituen arrazoiak xehetasunez aztertzen dituen txosten teknikoa eskatuko du Mahaiak.

Edozein kasutan ere, eskaintzak baztertuko dira bereziki baxuak direla egiaztatzen bada, azpikontratazioko araudia urratzen dutelako edo ingurumen, gizarte edo lan arloetan, naziokoa zein nazioartekoa, aplikatuko diren obligazioak urratzen direlako, indarrean dauden sektoreko hitzarmen kolektiboak barne.

Kontratisten justifikazioak, zeinaren eskaintza neurriz kanpokotzat eman den, eta hura aztertu duen udal teknikariaren txostena aztertuta, Kontratazio mahaiak kontratazio organoari modu arrozoitu batean proposatuko dio eskaintza onartzea edo baztertzea.

HAMAHIRUGARREN BALDINTZA. Berdinketa kasuetan lehenetsiko dena

Bi eskaintzari edo gehiagori emandako puntuazioan berdinketa gertatuko balitz, hurrengo irizpideei jarraituko zaie berdinketa hori desegiteko:

1. Emakumeen eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuna sustatuko duten neurri sozialak eta lanekoak.

2. Zozketa, aurreko irizpidea aplikatzean berdintasuna desegin ez denean.

Atal honetan aipatzen den berdintasuna desegiteko irizpideak egiaztatzen duten dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzaileek, ez aurretik (SPKLren 147. art.).

HAMALAUGARREN BALDINTZA Kontratazio mahaia

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

Kontratazio organoa izango da eskaintzak baloratzeaz eta dokumentu administratiboak sailkatzeaz arduratuko den organo eskuduna, eta 9/2017 Legearen, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 326. Artikuluaren eta 817/2009 Errege Dekretuaren, maiatzaren 8koa, arabera jardungo du, zeinak 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuena, eta haietan zehazten diren betekizunak beteko dituzte.

Kontratazio Mahaia Usurbilgo Udalbatzarrak 2012ko otsailaren 8an egindako bilkuran adostutako moduan eratuko da:

1. Agurtzane Solaberrieta Mesa, Alkatea, Mahaiko Lehendakaria

    - Ordezko Lehendakaria Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Kirol, Hezkuntza eta Langilego Zinegotzia.

2. Lur Etxeberria, Zerbitzuetako Zinegotzia, Bokala

    - Ordezko Bokala, Itziar Basterrika Unanue Gizartekintzako Zinegotzia.

3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokala

    - Ordezko Bokala, Olatz de Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria.

4. Xabier Olano Jauregi, Udal Kontu-hartzailea, Bokala

    - Ordezko Bokala, Gorka Lizarraga Erro Errenta Teknikaria.

5. Amaia Illarreta Izeta Hirigintza Teknikaria, Bokala

    - Ordezko Bokala,Ariadne Etxetxikia Barbero, Zerbitzu eta mantenu saileko burua .

6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko Idazkaria.

    - Ordezko Idazkaria, Jon Irusta Verdejo Teknikaria.

Gainera, Mahaiak hala eskatuz gero Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egiteko.

HAMABOSGARREN BALDINTZA Proposamenen irekitzea

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

Kontratazio mahaiak GUTUN AZAL BAKARRA irekiko du.

Kontratazio-organoak edo kontratazio–mahaiak hala eskatuta, lizitatzaileek adierazpen arduratsua zuzendu beharko dute, baldin ez bada aurkeztu edo aurkeztu dena ez badago behar bezala beteta. Halako kasuetan, eragindako lizitatzaileari edo lizitatzaileei, hiru baliodun eguneko epea emango zaie, zuzentzeko-errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio-organo edo –mahaiak ulertuko du lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan.

Bilkura berean ahal dela, eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu Mahaiak. Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Jarraian, kontratua esleitzeko proposamena aurkeztuko dio Mahaiak kontratazio-organoari, puntuaziorik onena lortzen duen hautagaiaren alde.

Behin esleipen proposamena eginda, kontratazio mahaiak , nahi badu, une horretan bertan, egiaztatu ahal izango du Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean enpresa behar bezala eratu dela, proposamenaren sinatzaileak eskaintza egiteko nahikoa ahalmen duela, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa baduela edo, bestela, hari dagokion sailkapena, eta kontratatzea debekatuta ez duela. SPKLren 139.1 artikuluan xedatua beteaz, proposamenak aurkezteak baimena ematen dio mahaiari eta kontratazio organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean dagokion egiaztapenak egiteko, edo baita Europar Batasuneko Estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan ere.

Enpresa sailkatuen erregistro ofizialean edo Euskal Autnomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena ema ez duten lizitatzaileen kasuan, kontratatzeko gaitasuna eta debekurik eza oro har finkatutako moduan egiaztatuko dute. Kaudimenari dagokionez, plegu hauetako 8.klausulan adirazitako moduan egiaztatuko da.

HAMASEIGARREN BALDINTZA. Dokumentuak eskatzea

Aurreko klausularen izapideak bete ondoren, kontratazio-mahaiak, jakinarazpen elektroniko bidez, eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio, jakinarazpena bidali eta

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

zazpi egun balioduneko epean, behin betiko bermea eratu dezan, bai eta 8. klausularen dokumentazioa aurkez dezan ere, SPKLren 75.2 artikuluan aipatzen diren aseguruak eta konpromisoa aurkez ditzan, bai eta SPKLren 76.2 artikuluaren arabera gauzatzera konprometitu den betearazpenari atxikitako baliabideak dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ere.

Emandako epean esleipendun gisa proposatutako hautagaiak ez balu dokumentazio hori aurkeztu, puntuazioaren arabera hurrengo dagoen esleipenduna proposatuko da esleipenduntzat, eta behin betiko bermea eratzeko dagokion epea emango zaio.

HAMAZAZPIGARREN BALDINTZA. Behin betiko bermea

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren % 5ko bermea eratu duela egiaztatu behar du, Balio Erantsiko Zerga kanpo. Berme hori hurrengo moduetan aurkeztu ahal izango da:

a) Eskudirutan edo baliotan, edozein kasutan ere Zor Publikokoa, kasua kasu, Lege honetan zehaztutako arauetako baldintzei jarraiki. Idatzitako balioen ibilgetze ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean edo Ekonomia eta Ogasuneko Delegazioetako sukurtsaletan gordeko dira, edo Autonomia Erkidegoetako edo kontratatzen duen Tokiko Erakundearen baliokideetan, Lege honen garapen arauek zehaztutako baldintzekin eta adierazitako moduan, atzerrian egiten diren kontratuentzat zehazten denaren aurka egin gabe.

b) Banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba, kredituko finantza-establezimendu eta Espainian eragiteko baimena duten finantza establezimenduen abal bidez, lege honetako garapen arauetan zehazten diren baldintzekin eta adierazitako moduan, eta aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetan gordeko dira.

c) Kauzio aseguruaren kontratu bidez, Lege hau garatzeko arauek zehaztutako moduan eta baldintzetan, arlo horretan jarduteko baimena duen aseguru etxe batekin. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) atalean zehaztutako establezimenduetan entregatu beharko da.

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

Bermea ez da itzuliko edo baliogabetuko berme epea iraungi eta kontratua behar bezala burutu arte. Legez ezarritako gutxienekoak alde batera utzi gabe, berme epea lizitatzaile bakoitzak bere eskaintzan adierazitako luzeera izango du.

Bermea eratzeko akreditazioa baliabide elektronikoen bitartez egingo da.

HEMEZORTZIGARREN BALDINTZA. Kontratuaren esleipena

Behin betiko bermea aurkeztu ondoren, 5 egun balioduneko epean, kontratua esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari esleituko zaio kontratua, eta, hura esleitutakoan, formalizatuko da.

Emandako epean esleipendun gisa proposatutako hautagaiak ez balu behin betiko berme hori aurkeztu, puntuazioaren arabera hurrengo dagoen esleipenduna proposatuko da esleipenduntzat, eta behin betiko bermea eratzeko dagokion epea emango zaio.

Esleipena, behar bezala arrazoituta, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da 15 eguneko epean.

HEMERETZIGARREN BALDINTZA. Kontratua formalizatzea

Kontratua formalizatuz burutuko da.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatzea esleipena lizitatzaileei eta hautagaiei esleipena jakinarazi denetik askoz jota hamabost eguneko epean egingo da; dokumentu hori nahikoa izango da erregistro publikoak atzitzeko.

Kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eska dezake eta hark ordaindu beharko ditu horri dagozkion gastuak.

Esleipendunaren erruz kontratua adierazitako epean formalizatu ez bada, lizitazioaren aurrekontuaren oinarriaren ehuneko 3 eskatuko zaio, BEZ barne, isun gisa, eta behin betiko bermearen aurka egikarituko da lehendabizi, eratu izan balitz.

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

HOGEIGARREN BALDINTZA. Kontratua Egikaritzeko Baldintza Bereziak

Kontratua egikaritzeko hurrengo baldintza bereziak zehazten dira, 9/2017 Legearen 202 artikuluan, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zehazten denaren arabera:

1. Lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenen pean dago kontratu hau.

2. Lizitatzaileek adierazi beharko dute zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren barruko jardunean aritzen diren langileei esleipendun gertatzen badira.Era berean, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute kontratua esleitutakoan langileei benetan aplikatzen zaizkien lan baldintzei buruz.

3. Kontratua gauzatzen ematen duen denbora guztian, dagokion Eraikuntza Hitzarmen kolektiboaren araberako lan baldintzak aplikatu beharko ditu enpresa esleipendunak , hau hobetzen duten eta indarrean dauden bestelako enpresa hitzarmenen kaltetan izan gabe, langileei dagokien kategoria profesionalaren arabera betiere, eta ordaintzen duen soldata inola ere ezingo da izan hura baino txikiagoa.

4. Klausula honek ezartzen dituen betebeharrak kontratua betetzeko baldintza berezitzat hartuko dira, eta haiek ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahalko du.

HOGEITA BATGARREN BALDINTZA. Alderdien eskubideak eta obligazioak

21.1 Kontratistari ordainketak

Administrazioak, ordaintzeko, hilean behin igorriko ditu, dagokion hilaren ondorengo hamar egunetan zehar, proiektuaren arabera aldi horretan egindako obren ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek konturako ordainketatzat hartuko dira, eta azken neurketan gertatzen diren zuzenketen menpe egongo dira. Hilean behingo ziurtagiri horiek ez dute obrak onartu eta jaso direla egiaztatuko.

1619/2012 Errege Dekretuan, azaroaren 30koa, zeinaren bitartez fakturazio obligazioak

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

arautzen dituen Araudia onartzen den, zehazten diren datu eta eskakizunez gain, 9/2017 Legearen, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Hogeita hamabigarren Xedapen Osagarriaren 2. atalean bildutako hurrengo baldintzak eta faktura elektronikoari buruzko araudian bildutakoa ere sartuko dira fakturan:

a) Kontratazio organoa Alkatea da.

b) Kontabilitate publikoko arloko organo administratiboa Kontu hartzailea da.

c) Hartzailea Usurbilgo Udala dela.

d) DIR3 kodea LO1200739 dela.

e) Kontabilitate bulegoa: LO1200739

f) Organo kudeatzailea: LO1200739

g) Unitate izapidetzailea: LO1200739

Kontratista, behin lanaren hileko ziurtagiria jaulkita, faktura erregistro administratiboan aurkeztu beharko da. Faktura formatu elektronikoan aurkeztu beharko da 25/2013 Legeak zehazten dituen kasuetan, abenduaren 27koa, Faktura Elektronikoa Sustatzekoa eta Sektore Publikoko Fakturen Erregistro Kontablea Sortzeari buruzkoa. Kasu hauetan, faktura Sartzeko Puntu Orokorrean aurkezteak administrazio erregistro batean aurkeztearen baliokidea da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazioak obren ziurtagiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaindu beharko du prezioa, 210. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, eta berandutzen bada, ordaindu beharko dizkio kontratistari, hogeita hamar eguneko epe hori betetzen denetik aurrera, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan.

21.2 Segurtasun eta Osasun plana

1627/1997 Errege Dekretuan zehaztutakoaren arabera, urriaren 24koa, zeinaren bitartez eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak zehazten diren, kontratistak Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko du, adierazitako Errege Dekretuan

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

adierazitako edukiarekin, eta segurtasun edo osasuna azterketan oinarrituta edo proiektuarekin batera igorritako oinarrizko segurtasun eta osasun azterketan oinarrituta. Plana obrak hasi aurretik onartu behar da.

Kontratista arduratuko da obrak seinaleztatzeaz (obren sarrera, zirkulazioa, puntu arriskutsuak...) bai obren eremuan bai inguruan.

Obrak egiteko beharrezkoak diren baliabide eta makina guztiek indarrean dagoen araudia bete behar dute eta, hala eskatuz gero, haien akreditazioa aurkeztu beharko dute. Gainera, obrako ibilgailu guztiek administrazioko dokumentu guztia indarrean edukiko dute (ibilgailuaren fitxa teknikoa, Trafikoko Zuzendaritzan alta, aseguruak, etab.).

22.3. Lan obligazioak, sozialak, hizkuntza eta gardentasun betebeharrak

Kontratistak nahitaez bete behar du lan eta gizarte segurantzan indarrean dagoen araudia. Halaber, 1/2013 Errege Lege Dekretua bete behar du, azaroaren 29koa, zeinaren bitartez onartzen den ezintasunen bat duten pertsonen eskubideen eta haien gizarteratzearen inguruko testu berretsia, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko benetako berdintasunari buruzkoa, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta Prebentzio Zerbitzuaren Araudia 39/1997 bitartez onetsia, urtarrilaren 17koa, eta baita kontratua egikaritzen den bitartean zehaztuko diren arauak ere.

Usurbilgo Udalak ez du lan harremanik izango langile horiekin. Gainera, kontratistak ordaindu beharko ditu lan istripuen ondorioz sortutako erantzukizunak. Lizitazio honetan, enpresak konprometitutako Hitzarmen Kolektiboa aplikatuko die obra honetako langileei. Kontratatutako enpresak informazioa eman beharko du, kontratuaren xede jardueran langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzen inguruan ematea eskatzen zaienean. Baldintza honetan bildutako obligazioak kontratuaren ezinbesteko baldintzatzat hartuko dira. Enpresa kontratatzaileak kontratuak irauten duen bitartean aplikatzeko konpromisoa hartu duen hitzarmen kolektiboko arau eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Gainera, kontratistarentzat hurrengo baldintzak zehazten dira emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren inguruan: Kontratua egikaritzeko sortutako dokumentu guztietan,

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

publizitatean, irudietan edo materialetan, enpresa edo entitate esleipendunak hizkuntzaren erabilera ez sexista erabiliko du eta emakumezkoen irudi baztertzailerik edo estereotipo sexistarik ezingo du erabili, eta berdintasun, presentzia orekatu, dibertsitatea, erantzukizun partekatu eta betekizunen zein genero identitateen aniztasuna sustatuko dute.

Hizkuntza baldintzei dagokienez, enpresa esleipendunak administrazio kontratatzailean aplikatuko diren hizkuntza arauak beteko dira, kontratuaren xede guztietan; horregatik, enpresaren eta administrazioaren arteko ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Erabiliko diren errotuluak, abisuak, seinaleak eta gainerako informazio orokorrak piktograma bidez egingo dira, eta, beharrezkoa denean euskaraz idatziko dira testuak. Piktograma bidez egiterik ez dagoenean, euskaraz egingo da, beti ere mezu ezagunak eta ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, komunikazioa elebiduna izango da, lehentasuna euskarari emanaz, aurretik hori administrazioarekin adostuta.

Udalaren Zerbitzuen Departamentua izango da hizkuntza betekizunak egiaztatzeaz arduratuko dena, eta gauza bera gertatuko da gainerako baldintza eta epeen jarraipenarekin. Euskara zerbitzuari jakinaraziko zaio emaitza, eta onartuko ditu edo neurri zuzentzaileak zehaztuko ditu hark.

Kontratuaren arduradunak kontratua betetzen den aztertuko du, hizkuntza betekizunak betetzen diren egiaztatuko du eta erabakiak hartu eta horretarako beharrezkoak diren jarraibideak ezarriko ditu.

Kontratuaren arduradunak azterketa bukaeran egiteaz gain, aldizka ere egingo du, hauteman ditzakeen erroreak zuzentzeko beharrezkoak diren euskarrien bitartez.

Bladintza agiri hauetan biltzen diren hizkuntza betekizunak nahitaez bete behar dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeari jarraiki, eta haiek ez betetzeak gainerako baldintzak ez betetzeak eragin ditzaketen ondorio berberak ekar ditzake, hau da, zigorra edo hura amaitutzat ematea.

Bukatzeko, 19/2013 Legearen 4. artikuluak zehaztutakoaren arabera, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazioa atzitzeari eta gobernu onari buruzkoa, kontratuaren esleipendunak nahitaez aurkeztu beharko du Administrazioan, aurretik eskatuta, arau hori

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

betetzeko bete beharko dituzten obligazioak, eta baita udal arloan ezartzen diren arauak betzeko ere.

21.4. Kontratua bukatutzat ematea eragin dezaketen funtsezko obligazioak

Kontratua egikaritzeko funtsezko obligazio gisa hartuko dira, aurreko baldintzan adierazitakoez gain, hurrengoak ere:

a. Kontraturako ezarritako esleipen irizpideen arabera baloratuko diren arlo guztietan esleipendunaren proposamena betetzea.

b. Azpikontratuarekin lotutako baldintza administratibo partikularren agiri honetan zehaztutako obligazioak.

c. Kontratua betetzeko baliabide pertsonal eta materialak arpidetzearekin lotutako baldintza administratibo partikularren agiri honetan zehaztutako obligazioak.

d. Indarrean dagoen legerian eta segurtasuneko eta osasuneko planean aurreikusitako segurtasun eta osasun neurriak goitik behera betetzea.

e. Langileei soldatak ordaintzea eta haien PFEZ atxikipena ordaintzea, Gizarte Segurantzako dagozkion kuotak egunean ordaintzeaz gain.

Kontratuaren oinarrizko betkizun horiek betetzeko, esleipendunak hilero, kontratua izapidetu duen administrazioaren unitatean aurkeztu beharko du hurrengo informazioa:

— Soldata eta Gizarte Segurantzaren ordainagiriak, eta baita azpikontratatuei egindako ordainketenak ere.

— Laneko segurtasun eta osasun arloan obligazioak betetzeko egingo diren ekintzak azaltzeko txostena, non hile bakoitzean gertatu diren arazoak azalduko diren.

Kontratuaren udal arduradunak justifikazio hori betetzeari buruzko txostena egingo du. Txosten horretan baldintza honetan kontratua kudeatzen duten langileei buruzko obligazioak betetzen diren ala ez adieraziko da.

Aldeko txosten hori beharrezkoa izango da faktura ordaintzeko, eta berehala abiaraziko da zigor edo kontratua bukatutzat ematea, dagokionean.

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

21.5. Hura jasotzeko epea eta bermearen epea

Obra bukatutakoan, dena garbituko da, eta gainerako garbiketaren beharrik gabe erabili eta abian jartzeko bezala utziko da obren kokapena.

Kontratistak, hamabi baliodun egun aurretik, idatziz jakinaraziko dio obraren zuzendaritzari obrak bukatzeko aurreikusita dagoen data edo kontratuaren iraungitze data, hura jaso ahal izateko.

Obren zuzendaritzak, komunikazio horrekin ados badago, txostena kontratazio organoari aurkeztuko dio bukatzeko aurreikusita dagoen data baino hamar egun baliodun lehenago, gutxienez.

Obrak bukatutakoan, Administrazioak haren ordezkari izendatutako bat egongo da, obren zuzendaritzen arduraduna, udal esku hartze organoa eta kontratista, nahi izanez gero, haren teknikoaren laguntzarekin. Bertan parte hartu duten guztien emaitzekin, Akta bat jasoko da, eta parte hartzaile guztiek sinatuko dute.

Obrak egoera onean badaude, eta aurreikusitakoaren arabera, Administrazio kontratatzaileak esleitutako funtzionario teknikoak, zeina haren ordezkaria izango den, jasotzat emango ditu, eta hari dagokion aktan bilduko da, eta orduan hasiko da eskainitako bermearen epea.

Obrak hartzeko moduan ez badaude, berariaz jasoko da, eta akatsak zuzentzeko jarraibideak emango zaizkio kontratistari. Zuzenketak egiten ez badira, Administrazioak kontratistaren kontura utziko ditu, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea eskuratuko du.

Obrak jasotakoan, neurketa orokorra egingo da, kontratista bertan dela, eta obraren zuzendariak, harrera egin eta hilabeteko epean, proiektuaren arabera benetan gauzatutakoak neurtuko ditu. Neurketa orokorraren emaitza oinarri hartuta, obraren zuzendariak dagokion zerrenda baloratua idatziko du.

Harrera egin eta hiru hilabeteko epean, egindako obren azken ziurtagiria onartu beharko du kontratazio-organoak, eta kontratuaren likidazioaren kontura ordainduko zaio kontratistari.

Bermearen epean zehar egindako obretan akatsik edo biziorik egiaztatuko balitz, Kontratazio organoak kontratistari haiek erreklamatu ahal izango dizkio, konpon ditzan.

Bermearen epea bete aurretik 15 eguneko epean, obraren zuzendari teknikoak, ofizioz edo

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

kontratistak eskatuta, txosten bat idatziko du obren egonera zein den azaltzeko. Aldekoa balitz, kontratista ez litzateke erantzulea izango, SPKLren 244. Artikuluak dioena salbu, ezkutuko bizioen aurrean, eta bermea itzuli edo baliogabetuko da, kontratua likidatuko da eta, kasuan kasu, egiteke dauden obligazioak ordaindu beharko dira hirurogei eguneko epean. Txostena aldekoa ez bada, eta ikusitako akatsak obrak egiteko moduaren ondorioz badira, eta ez eraikitakoa erabiltzearen ondorioz, bermeak irauten duen bitartea, zuzendari teknikoak kontratistari jarraibideak emango dizkio eraikitakoa konpon dezan, eta horretarako epe bat adieraziko dio. Epean zehar lanak mantentzeaz arduratzen jarraituko du, eta ezingo du dirurik jaso bermearen epea areagotzeagatik.

21.6 Kontratistari eskatu ahal izango zaizkion gastuak

Kontratistaren kontura izango dira kontratua formalizatzearen gastuak, bai eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak diren gainerako gastuak ere, xedapen horietan adierazitako moduan eta zenbatekoan.

21.7 Baimenen eta lizentzien kudeaketari buruzko obligazioak

Kontratistak nahitaez kudeatu beharko ditu obra hasteko, gauzatzeko eta entregatzeko beharrezkoak diren udal-ordenantzetan eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturen arauetan ezarritako baimenak eta lizentziak, eta horretarako beharrezkoak diren agiriak eskatu beharko dizkio Administrazioari, kontratazio-organoak berak kudeatzea erabakitzen duenean eta berariaz adierazten duenean izan ezik.

Era berean, enpresa kontratistak bere kabuz instalatu beharko ditu obrarako sarbidea, lan-eremuetako oinezkoen zirkulazioaren erregulazioa eta balizko arrisku-puntuak adierazteko seinaleak, bai esku hartzeko gunean bertan, bai mugetan eta inguruetan, bai eta obraren izaerak eskatzen dituen pertsonen eta ondasunen segurtasun-neurri guztiak hartzeko seinaleak ere.

21.8 Kontratistaren erantzukizuna

Kontratista izango da, obrak gauzatzen diren bitartean, bere ardurapeko langileen egintzen,

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

ez-egiteen edo zabarkeriaren ondorioz, edo obrak behar bezala antolatu, babestu edo seinaleztatzearen ondorioz, edozein pertsona, jabetza edo zerbitzuri, publiko zein pribaturi, eragin dakizkiokeen kalte-galeren erantzulea.

Horretarako, kontratua sinatu aurretik, enpresa esleipendunak polizaren kopia eta aseguru-kontratu hauen ordainagiria aurkeztu beharko ditu:

1.- Erantzukizun zibileko poliza, orokorra, patronala, gurutzatua eta bukatutako lanarena, eta aseguratuen artean kontratista, azpikontratista eta administrazioa hartuko ditu, azkena, obraren sustatzaile gisa. Gutxienez 600.000 euroko estaldura bermatuko da, eta biktima bakoitzarentzako azpiestaldura 300.000 eurokoa izango da.

2.- Eraikuntzako Estaldura Osoko Poliza, zeinak egindako eta egiten ari diren obrak estaliko dituen, aseguratu gisa Udala agertuko da, zeinak hurrengo estaldurak izango dituen:

1) Suteen, tximisten, leherketen, lapurreten, espoliazioaren, inpaktuen, trebezia faltaren, axolagabekeriaren, ekintza bandalikoen eta asmo txarreko ekintzen, naturaren arriskuen edo bestelako izendatu gabeko arriskuen ondoriozko kalteak.

2) Hurrengoen ondoriozko berme osagarriak:

- Diseinuko errorea, fabrikatzailearen arriskua.
- Aparteko orduak, hondakinak kentzea, eraisketa, agintariek hartutako neurriak
- Aurretik zeuden ondasunei eragindako kalteak.
- Greba, matxinada eta terrorismoa.

Aseguratuta geratuko dira jatorria eraikuntza aldian duten galerek eta kalteek, eta baita etapa horretan edo ondoren, obren kontratuan ezarritako obligazioak behar bezala betetzeko egingo diren lanen ondorioz gertatzen direnak ere. Polizaren mantentze aldia, gutxienez, urte betekoa izango da obrak jasotzen direnetik.

Azpikontratatzen denean asegurua eskatzeko erantzukizuna kontratistarena izango da.

HOGEITABIGARREN BALDINTZA. Azpikontratazioa

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

Kontratuaren xede diren prestazio osagarrien azpikontratazio partziala baimentzen da 9/2017 Legearen 215. Artikuluak zehaztutako baldintzekin, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.

Azpikontratazioa hurrengo oinarrizko betekizunen arabera egingo da:

a) Aldez aurretik Udalari idatziz jakinaraztea hurrengo datuak egin nahi den azpikontratu bakoitzarekin lotuta:

- Azpikontratistaren identifikazioa, harremanetarako datuak, ordezkaria, nortasun, gaitasun eta kaudimen datuekin.

- Azpikontratistak egin beharreko kontratuaren zatiak identifikatzea.

- Azpikontratatuko diren prestazioen zenbatekoa.

b) Ezingo da kontratatu Administrazioarekin kontratatzea debekatuta duten pertsonarik edo enpresarik, ezta gaitasunik, kaudimenik eta azpikontratatu nahi diren lanak egiteko gaitasun profesionalik ez duen pertsonarik ere.

c) Azpikontratatuko duen kontratistak azpikontratatutako lanekin hasi aurretik egiaztatu beharko du lanak egingo dituzten langileen Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta, 5/2011 Errege Dekretu-legeak zehazten duena beteaz, apirilaren 29koa, ezkutuko enplegua erregularizatzeko eta kontrolatzeko neurriena eta etxebizitzan zaharberritzea sustatzekoa.

d) Kontratistak azpikontratatutako langileen ordezkariei informatuko die, lan legeriak adierazitako moduan.

e) Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean soilik egongo dira behartuta, eta hark hartuko du bere gain kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa udalaren aurrean, administrazio-klausula zehatzen agirietan eta kontratuaren baldintzetan ezarritakoaren arabera. Udalak azpikontratazioak daudela jakiteak ez du aldatuko kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa.

f) Kontratistak azpikontratistei egindako prestazioengatik hitzartutako prezioa ordaindu beharko die, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan gutxienez. Hori betetzen dela bermatzeko, Udalari egindako fakturazio bakoitzaren bidez,

Joxe Martin Sagardia plaza, z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • www.usurbil.eus

kontratistak kontratu honen esparruan azpikontratatu dituen enpresek edo autonomoek aurreko hilean egindako lanen ordainagiria aurkeztu beharko du.

HOGEITA HIRUGARREN BALDINTZA. Aldaketak kontratuan

9/2017 Legean, azaroaren 8koa,Sektore Publikoko Kontratuena, zehazten denaren arabera egingo dira aldaketak.

HOGEITA LAUGARREN BALDINTZA. Kontratistaren pertsonan ondorengotza

Enpresen edo haien jarduera adarren bategite, bereizte, ekarpen edo transmisio kasuetan, sortzen den entitatearekin jarraituko du indarrean kontratuak, eta hari dagozkion eskubideak eta obligazioak izango ditu, 9/2017 Legearen, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 98. artikuluak zehazten duena betetzen bada.

